



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2017KO AZAROAREN 23an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Olaberrian, 2017ko azaroaren 23an, arratsaldeko 18:05 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), Nerea Castaño Irazola (O.E.O) , Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O) eta Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) eta Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) zinegotziak .

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

AURREKO BILKURETAKO AKTEN
ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

- 2017ko irailaren 21eko Ohiko Batzarraren akta.
- 2017ko urriaren 19ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

Aktak bozkatzen dira, biak aho-batez onartuz.

ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 23 DE NOVIEMBRE DE
2017.

En Olaberria, a 23 de noviembre de 2017, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O) , y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O) , Maider Agirre Mugika (O.E.O) , Elixabet Canales Segurola (O.E.O) , Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) e Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) .

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS
ACTAS DE LAS SESIONES
ANTERIORES.

- Acta de la Sesión Ordinaria del 21 de septiembre de 2017.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 19 de octubre de 2017.

Se procede a la votación, aprobándose las dos actas por unanimidad.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 169/2017etik 204/2017 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Gañerako eskola zaharretan egingo den etxebizitza sustapen berriko aukeraketa eta esleitze prozeduran, Alkatea eta Alkateordearen abstentzio proposamena.

Pasatako azaroaren 16ko batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaion udal-kideei.

Olaberriko Udalak, Gañerako eskola zaharretan etxebizitza tasatuen promozio bat bultzatu nahi du eta horren ondorioz Alkatearen semea eta Alkateordea eskatzaile bezala aurkeztearen aukera mahaigaineratu da.

Hori argitu ahal izateko, udal idazkari-kontuhartzaileari txosten bat burutzeko enkargua egin zaio, aipatu udal-kideen bateragarritasun-eza edota abstentzioaren inguruan.

Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko azaroaren 15ean, dagokion espedientearen dagoen txostena ingortzen du, ondoko ondorio hauek

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 169/2017 al 204/2017.

Los corporativos quedan al corriente.

Propuesta de abstención del Alcalde y de la Teniente de Alcalde en el procedimiento de selección y adjudicación de la nueva promoción de viviendas tasadas municipales en las viejas escuelas de Gañera.

Se expuso el tema a los corporativos en la comisión informativa celebrada el pasado 16 de noviembre.

El Ayuntamiento de Olaberria tiene la intención de impulsar una promoción de viviendas tasadas municipales en la zona de las antiguas escuelas de Gañera y se ha planteado la posibilidad de que se presenten como solicitantes el hijo del Alcalde y la Teniente de Alcalde.

Se ha encargado al efecto un informe a la secretaria-interventora municipal a cerca de la posible incompatibilidad o abstención de los citados corporativos.

La secretaria-interventora ha emitido un informe el 15 de noviembre de 2017, que obra en su correspondiente expediente, en



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

jaso:

el que viene a concluir lo siguiente:

“(…)

1.- *El contrato que tiene por objeto la compraventa de una vivienda de precio tasado municipal previamente adjudicada mediante sorteo, es un contrato privado de naturaleza patrimonial.*

2.- *Los contratos patrimoniales al quedar excluidos de la Ley de Contratos del Sector Público hacen que no rija respecto de los mismos las prohibiciones de contratar recogidas en dicha normativa de contratación.*

3.- *No considero que haya causa de incompatibilidad por el hecho de ser concejal para poder ser solicitante de una vivienda tasada municipal, entendiéndose sin embargo, que debería abstenerse en base al artículo 23.2 a) LRJSP.*

4.- *En cuanto al hijo del Alcalde, no existe incompatibilidad del Alcalde porque el solicitante es su hijo pero entiendo que debería abstenerse de participar en el procedimiento según el art. 23.2.b) LRJSP .*

5.- *No creo que exista prohibición alguna, a salvo del **deber de abstención en las actuaciones**, - todas las actuaciones, no únicamente las puramente resolutivas- por lo que las solicitudes deben admitirse y valorarse con los criterios objetivos establecidos en las bases.*


(…)”

Udal-kideek agiri guztiak aztertu eta udal idazkari-kontuhartzaileak azaroaren 15 ean igorritako txostena oinarritzat hartuz, honako erabaki hauek hartzen dituzte:

LEHENENGOA: Alkate eta Alkateordeak Gañerako eskola zaharretan etxebizitza tasatuen esleipen prozeduran parte hartzean sustatutako abstentzio proposamena onartzea.

Una vez los corporativos estudian la documentación obrante y en base al informe de la secretaria-interventora municipal de 15 de noviembre, toman la siguiente decisión:

PRIMERO: Aceptar la propuesta de abstención promovida por el Alcalde y la Teniente de Alcalde de participación en el procedimiento de adjudicación de las viviendas municipales a precio tasado en las antiguas escuelas de Gañera.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Abstentzia, prozedurarekiko jarduera guztietara zabalduko da.

HIRUGARRENA: Udaletzeko diru-zaina den Mainer Agirre Mugika zinegotziak, kide bakarreko organo bezala dagozkion erabaki hartzailea izan dadila erabakitzen da.

AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA

Udal etxebizitza tasatuen inguruko Ordenantzaren aldaketa.

Udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

9. artikuluko 3. atalaren aldaketa proposatzen da honela geratuko litzatekeelarik:

3.- Udalerriko biztanle izan beharra edo udalerrian lan egin beharra.

A.- Udal-etxebizitza tasatuak azalera jabetzan edo jabetza osoan jaso ahal izateko, ez da beharrezkoa izango Olaberriarekin lotura mailarik edukitzea. Halere, lehenasuna edukiko dute bizikidetzaren unitateko kideren batek, ondorengo baldintzetako bat betetzen badu lehenasunezko ordena honetan:

a) Azken 5 urteetatik gutxienez 3 urtetan Olaberrian erroldatuta egotea eta bertan izatea ohiko helbidea.

b) Azken 10 urteetan Olaberrian aritzea lanean.

SEGUNDO: La abstención se prolongará a todas las actuaciones del procedimiento.

TERCERO: Se acuerda que sea la concejal Mainer Agirre Mugika, Tesorera municipal la que tome las decisiones que le correspondan como órgano unipersonal.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

Modificación de la Ordenanza de viviendas tasadas municipales.

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se propone la modificación del artículo 9 apartado 3º en el siguiente sentido:

3.- El requisito de residencia o vinculación laboral con el municipio.

A.- Para ser beneficiario de una vivienda tasada municipal bien en plena propiedad, bien en propiedad superficiaria, no será requisito indispensable tener algún grado de vinculación con Olaberria. Sin embargo, se dará prioridad a los casos en los que alguno de los componentes de la unidad convivencial cumpla con, y en este orden de prioridad, uno de los siguientes requisitos:

a) Residencia habitual y empadronamiento en Olaberria durante un mínimo de 3 años a lo largo de los últimos 5 años.

b) Trabajo en Olaberria a lo largo de los últimos 10 años.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Une honetan eta proposamena bozkatu baino lehen, EH-BILDUko zinegotziak Alkate eta Alkate-Ordearen abstentzioa eskatzen du gai honi dagokionez, honek, Gañera auzoan egingo diren prezio tasatuko 9 etxebizitzaren promozioarekin duen harremana dela eta.

EH-BILDUko zinegotziak egindako proposamena eztabaidatu ondoren, udal-kideek onartzea erabakitzen dute aho-batez, aurreko puntuan erabakitakoaren era berdinean.

Aurrekoa argitu ondoren, Udal-kideek gaia bozkatzen dute, Alkate eta Alkate-Ordearen ez-egotearekin, honako hau izanik emaitza:

LEHENENGO: Bertan dauden Udal-kide guztien aldeko botoarekin, proposatu den Ordenantzaren aldaketa onartzen da.

BIGARRENA: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua dioenaren arabera, 30 eguneko informazio publikoko epea irekitzen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, espedienteaz aztertze aukera emateko eta, kasu bada, egoki kontsideratzen diren alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hala ere, alegazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, erabaki berririk hartzeko

En este momento, y con anterioridad a la votación de la propuesta, el concejal del grupo EH-BILDU propone que tanto el Alcalde como la Teniente de Alcalde se abstengan en este tema, por su relación con la promoción de las 9 viviendas tasadas municipales en el barrio de Gañera.

Una vez debatida la propuesta del concejal del grupo EH-BILDU los corporativos deciden unánimemente aceptarla en los mismos términos que en el punto anterior.

Una vez aclarado lo anterior, los Corporativos proceden a la votación, con la ausencia del Alcalde y la Teniente de Alcalde, siendo el resultado el siguiente:

PRIMERO: Se aprueba con el voto favorable de los Corporativos presentes la modificación de la Ordenanza que se ha propuesto.

SEGUNDO: De acuerdo con el artículo 49 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un período de información pública de 30 días, contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con el objeto de que se pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.

No obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna a dicha ordenanza, se tendrá por aprobada definitivamente, sin



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

beharrrik egon gabe.

EH-BILDU taldeko zinegotziak ondorengo aipamen hauek egiten ditu bere botoa zehazteko xedearekin:

Proposatu den Ordenantzaren aldaketa bera lehenago egin behar zen. Horrela izan balitz, Zezilioenea atzekaldeko etxebizitzaren promozioak ez zukeen porrot egingo eta ez zitzakeen xahutuko xahutu zen herritarren dirua.

193/2017 eta 205/2017 alkatetza dekretuen berrespena.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Olaberriko Udaleko Udalbatzak, 2017ko urriaren 19an eginiko ez-ohiko sesioan, beste batzuen artean, Cari de la Cruz kaleko 22-36 zenbakietako urbanizazioa birgaitzeko kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen agiria onartu zuen.

Aipatu plegutan zenbait kongruentzi-eza antzeman ondoren, euskara eta gaztelaniazko bertsioen artean alde batetik eta akats materialen bat beste batetik, 193/2017 eta 205/2017 dekretuen bidez zuzentzen dira, egiten den hurrengo ohiko bilkuran Udalbatzak berrestearen mende jartzearen baldintzapean.

necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

El Concejal del grupo EH-BILDU, con el fin de matizar su voto realiza las siguientes afirmaciones:

La modificación de la Ordenanza que se ha propuesto se tenía que haber llevado a cabo antes. Si hubiera sido así, no hubiera fracasado la promoción de las viviendas previstas en la trasera de Zezilioena y no se hubiera malgastado el dinero de los ciudadanos.

Ratificación de los decretos de alcaldía 193/2017 y 205/2017.

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el 19 de octubre de 2017 acordó, entre otras cosas, la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas particulares que han regir el procedimiento de contratación referente a la reurbanización de la calle Cari de la Cruz números 22-36.

Advertidas ciertas incongruencias en los mismos, entre las versiones en euskera y castellano por un lado y algún error material, se procede a su subsanación a través de los decretos 193/2017 y 205/2017, con la condición de someter este acuerdo a ratificación del Ayuntamiento Pleno en la próxima sesión ordinaria que se celebre.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Agindu hori betetze aldera, gaia bozkatzen da, udal-kideek honako hau erabakiz:

BAKARRA: 2017ko urriaren 31ko 193/2017 eta azaroaren 13ko 205/2017 alkatetza ebazpenak berrestea erabakitzen da, ahobatez.

LANGILERIA

Lanpostuen balorazioa: onarpena.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Udalak, Udaletxearen egituraketaren eraberritzearen eta lanpostu zerrenda zein lanpostuen balorazioaren inguruko lan bat enkargatu zuen.

Era berean, Udaletxe eta udal langileen ordezkarien arteko negoziazio kolektibo bat aurrera eraman da, 2017ko urriaren 24ko, 2017ko azaroaren 3ko eta 2017ko azaroaren 14ko bileren bitartez, zeinetan aldeak, ondoren zehazten diren akordioetara heldu ziren:

1.- Puntuaren prezioa 3,5 eurokoa izan dadila erabakitzen da.

2.- Balorazioaren ondorioz, negatiboan geratu diren lanpostuei behin-behineko osagarri pertsonala (BOP) onartzea erabakitzen da.

En cumplimiento de dicho mandato, se procede a la votación, acordando los corporativos lo siguiente:

ÚNICO: Se acuerda por unanimidad la ratificación de los decretos de alcaldía 193/2017 y 205/2017, de 31 de octubre y 13 de noviembre respectivamente.

PERSONAL

Valoración de puestos de trabajo: aprobación.

En la pasada comisión informativa se expuso el tema a los corporativos.

El Ayuntamiento encargó la elaboración del trabajo consistente en rediseñar la estructura organizativa del propio Ayuntamiento, además de elaborar una relación de puestos de trabajo y una valoración de los mismos.

Asimismo, se ha llevado a cabo una negociación colectiva entre los representantes de los trabajadores y del Ayuntamiento, a través de reuniones con fecha 24 de octubre de 2017 y 3 de noviembre de 2017, culminando dicha negociación el 14 de noviembre de 2017, en la que las partes llegaron a los siguientes acuerdos:

1.- Se acuerda que el precio punto sea de 3,5 euros.

2.- Se acuerda la aplicación de un complemento personal transitorio (CPT) a todos los trabajadores a los cuales el resultado en la valoración de puestos haya resultado negativo.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

3.- BOP-a ez xurgagarria izatea erabakitzen da, hau da, aurrerantzean emango diren soldata igoerak zuzenean soldatari aplikatuko zaizio, BOP-ak xurgatu gabe.

4.- BOP-a birbaloragarria izan dadila erabakitzen da, hau da, ordainsariei igoerak aplikatzeko unean, hauek osatzen dituzten kontzeptu guztiei aplikagarri izan zaizkien.

5.- Balorazioak zehaztutako soldatei ere dagozkion igoerak aplikatzea erabakitzen da, horrela, enplegu publikoaren eskaintza ateratzen denean eguneratuak egon daitezten.

6.- Balorazioan emaitza positiboa eduki duten lanpostuei atzeraeraginkortasuna aplikatzea erabakitzen da 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko azaroaren 15ean, balorazio txostenaren aplikazioaren eta negoziazio mahian hartutako erabakiaren legaltasunari buruzko txostena igorri du, dagokion espedientean dagoelarik.

Gaia aski aztertu eta eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak honako erabaki hauek hartzen ditu EH-BILDU eta O.H.E. taldeko zinegotzien aurkako botoarekin:

LEHENENGOA: Olaberriko Udaleko lanpostuen balorazioa onartzea, akta honetako zati adierazgarrian jasotako negoziazio mahian adostutako sei puntuekin batera.

3.- Se acuerda que el CPT sea no reabsorbible, es decir, que las subidas salariales que se den en adelante, se apliquen directamente al sueldo, sin que se absorba a través del CPT.

4.- Se acuerda que el CPT sea revalorizable, es decir, que en el momento de aplicar subidas en las retribuciones, se apliquen en todos los conceptos salariales, incluido el CPT.

5.- Se acuerda aplicar las subidas que se tengan que aplicar también a los sueldos especificados por la valoración, de modo que cuando salga la oferta de empleo público estén actualizados.

6.- Se acuerda aplicar la retroactividad desde el 1 de enero de 2017, a los puestos en los que la valoración han tenido un resultado positivo.

La secretaria-interventora emite informe preceptivo el 15 de noviembre de 2017, a cerca de la legalidad de la aplicación de los resultados del informe de valoración y de los acuerdos adoptados en la mesa de negociación, que consta en su correspondiente expediente.

Tras haberlo estudiado y debatido suficientemente, el Pleno acuerda lo siguiente con el voto en contra de los concejales de EH-BILDU y O.H.E. :

PRIMERO: Aprobar la valoración de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Olaberria, junto con los seis puntos acordados en la mesa de negociación, que se detallan en la parte expositiva de la presente acta.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Akordio hau afektaturikoei jakinaraztea.

O.E.O. taldeko zinegotzia den Elixabet Canales Segurola andreak zera azpimarratu nahi du: nahiz eta berak lanpostuaren balorazioak emandako emaitzaren alde bozkatu duen, negoziazio kolektiboaren ondorioz lortutako 6. puntuarekin ados ez dagoela, hain zuzen ere atzeraeraginkortasunari dagokiona.

O.H.E. taldeko zinegotzia den Arantzegi jaunak, bere bozkaren zentzua azalatzeko xedearekin ondoren jasotzen den idatziaren irakurketari ekiten dio:

SEGUNDO: Notificar el siguiente acuerdo a los afectados.

La concejal del grupo O.E.O. Elixabet Canales Segurola puntualiza que aunque ha votado a favor del resultado de la valoración de puestos, está en contra del punto n.º 6 resultante de la negociación colectiva referente a la retroactividad .

El concejal del grupo O.H.E., Sr. Arantzegi pasa a dar lectura al siguiente escrito con el fin de exponer el sentido de su voto:

“ Olaberriko Herri Elkarteak ezezko botoa ematen dio puntu honi ondorengo arrazoiengatik:

- Gai guzti hau hasieratik ixilpean eta sekretupean egon da, zurrumurruei atea emanez eta tentsioak sortuz.
- Informazio falta. Informazioa oso era ezegokian eman dela iruditzen zaigu, berandu eta gaizki. Gainera, Udalaren aldetik ez da inolako azalpenik eman. Eskaini diren azalpen bakarrak kanpotik etorri den enpresa batek eman ditu.
- Langileen tratua. Besterik gabe negoziazio batetara izan dira konbokatua. Alkateak ez du langilean banan-banan bilera batera konbokatze konprometzua bete.

Guzti honengatik uste dugu etorkizunean horrelako gaiak tratatzerako garaian langileenganako konfidantza handiagoa erakutsi beharko lukeela Udalak. “

Udal-kideen artean hartu-eman bat suertatzen da, funtsezko aipamenak honako hauek izanik:


- Iñigo Sarasola (EH-BILDU)

.- Balorazio hau orain dela urte t'erdi hasi zen

Se produce un debate entre los corporativos cuyas afirmaciones fundamentales han sido las siguientes:

- Iñigo Sarasola (EH-BILDU)

.- Esta valoración dio comienzo hace un



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

eta honen helburua, noizbehin Alkateari entzun bezala, gastuen aurrezpena izanda.

.- Balorazioaren emaitza eta hartutako akordioak kontutan hartuta, non dago aurrezpena?

.- Gai hau ez da behar bezala kudeatu eta ez du pena merezi izan, batik bat kontutan hartuz langileek sufritu dutena.

- Mainer Agirre (O.E.O)

.- Lortu dena zera izan da: lehenengo aldiz Udaletxean irizpide objektiboekin burututako lanpostuen zerrenda eta lanpostuen balorazio bat.

.- Balorazioaren emaitzak ikusi ahal izango dira batik bat lanpostuak amortizatzen diren eta pertsona berriak sartzen diren heinean, azken hauei lanpostuen zerrenda berria aplikatuko zaielarik. Aurrean esandakoaz gain, lanpostu zerrenda berria aplikatuko zaie baita ere oraingo langileren batek baja hartuko balu eta bere lanpostuan beste norbait sartuko balitz behin-behineko izaeraz, langile berriari.

- Alkatea

.- Dirua aurreztea ez du esan nahi gutxiago gastatzea, baizik eta ondo gastatzea eta bidezkoa den era batean.

.- Sufrimendu eta krispazioari dagokionez, ez al du krispazio gehiagorik sortarazten irizpide objektiboekin egindako lanpostuen balorazio baten ondorioz agerian geratzea bi langileen artean, lan berdina egiteagatik, urtean 14.000

año y medio, y el objetivo de la misma, según ha escuchado decir al Alcalde, ha sido el ajuste de gastos.

.- En base al resultado de la valoración y los acuerdos adoptados, dónde está el ahorro de dinero?

.- Este tema no se ha gestionado debidamente y no ha merecido la pena teniendo en cuenta el sufrimiento de los trabajadores.

- Mainer Agirre (O.E.O)


.- Lo que se ha conseguido es tener por primera vez en el Ayuntamiento una relación de puestos de trabajo (RPT) y una valoración de puestos realizada con criterios objetivos.

.- Los resultados de la valoración se harán visibles en el momento en el que se vayan amortizando los puestos de trabajo y entre personal nuevo, al que se le aplicará la vigente relación de puestos de trabajo. Además de lo anterior, también se aplicará la nueva RPT para los casos en los que por motivo de alguna baja del personal actual ese puesto tenga que ser cubierto temporalmente por otro trabajador.

- El Alcalde

.- El ahorro de dinero no consiste en gastar menos, sino en gastar bien y de forma equitativa.

.- En cuanto al sufrimiento y la crispación, no genera más crispación el hecho de que tras la elaboración de una valoración objetiva del puesto de trabajo se quede de manifiesto que, por el mismo trabajo un



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

euroko diferentzia egoteak?

.- Lanpostuen balorazioa ez da soilik dirua aurrezteko egin, baizik eta lanpostu guztiak balore objektibo batzuen baitan bata bestearikiko alderatzeko.

.- Baliteke, gauza berria izateagatik, langileei begira prozedura ez da era hoberenean eraman.

Administrari kontulariarentzat aldi bateko produktibitate osagarria.

Joan zen batzorde informatzailean gaia azaldu zitzairen Udal-kideei.

Rosa Vázquez administrariaren baja dela eta, epe honetan bere lanpostuan lan egiteko beste pertsona bat kontratatu zen.

Jakinda lanpostuaren titularraren baja bat-batekoa izan zela, ez zen aukerarik egon langile berriari lanpostuari zegozkion lanak erakusteko. Horrela, administrari-kontulariak bere kargu hartu zuen langile berria, funtsezko eginbeharrak erakutsiz eta era berean, berak burutu zituen idazkaritzako administrari lanpostuaren funtzioak.

Jesus Mari Aguirrezabalak – administrari kontulariak- idatzi bat zuzendu dio Alkateari egindako ez-ohiko lanengatik konpentsazioa eskatuz eta Gobernuak produktibitate osagarri puntual baten aplikazioa baloratzeko erabakia hartu du, soilik Rosa Vazquez andrea behin-behineko ezgaitasun egoeran egon zen epeari dagokionez.

trabajador cobre anualmente 14.000 euros más ?

.- La valoración de puestos de trabajo no se ha llevado a cabo únicamente para ahorrar sino para, en base a unos parámetros objetivos , situarlos entre sí.

.- Probablemente, por ser algo novedoso, no se haya llevado el procedimiento de la mejor manera de cara a los trabajadores.

Complemento de productividad puntual a la persona que ocupa el puesto de administrativo contable.

En la pasada comisión informativa se expuso el tema a los Corporativos.

Con motivo de la baja de la administrativa de secretaria, Rosa Vázquez, se procedió a la contratación de otra persona para la cobertura de ese puesto durante el período de baja.

Teniendo en cuenta que la baja de la titular del puesto fue repentina, no hubo opción de que su titular instruyera al nuevo trabajador en las tareas a realizar, de tal forma que fue el administrativo contable el que se encargó tanto de instruir en lo fundamental al novato, como de llevar a cabo él mismo tareas del puesto de trabajo de administrativo de secretaría.

El Sr. Jesus Mari Aguirrezabala – administrativo contable- ha dirigido un escrito al Alcalde solicitando una compensación por las tareas extraordinarias llevadas a cabo y el Gobierno decidió estudiar la posibilidad de aplicar un complemento de productividad puntual y únicamente teniendo en cuenta el



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Udal idazkari-kontuhartzaileak eskatuz, Aguirrezabala jaunak epe horretan bere lanpostuari ez zegozkion egindako lanak zerrendatu zituen.

Udal idazkari-kontuhartzaileak, 2017ko azaroaren 15ean halabeharrezko txostena igorri zuen, legezketasun ikuspuntutik eskatutako produktibitate osagarri puntualaren aplikazioaren aukeraren ingurukoa. Aipatu txostena udal-kideei azaltzen dio eta dagokion espedientean dago.

Gaia aztertu eta aski eztabaidatu ondoren eta aipatu idazkari-kontuhartzailearen txostenean oinarrituz, Udaltzako honako erabaki hauek hartzen ditu gehiengo absolutuz EH-BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

LEHENENGO: Jesus Mari Aguirrezabala jaunari produktibitate osagarri puntuala aplikatzea erabakitzen da, kopuru ekonomikoa honako hau izanik: idazkaritza administrari lanpostuari dagokion soldata, lanpostu-mailako osagarriaren eta tramo orokorrari dagokion osagarri espezifikoaren gehiketaren % 15a.

Osagarri hau sei hilabetetatik aplikatuko da.

Produktibitate osagarriaren kopuru zehatza 1.959,63 euro gordina izango da.

período durante el cual Rosa Vázquez estuvo en período de incapacidad temporal.

A petición de la secretaria-interventora municipal, el Sr. Aguirrezabala elaboró un listado con las tareas realizadas durante este período de tiempo, no correspondientes intrínsecamente, a su puesto de trabajo.


La secretaria-interventora emite informe preceptivo el 15 de noviembre de 2017, a cerca de la posibilidad, desde el punto de vista legal, de aplicar este complemento de productividad puntual, que expone a los corporativos y obra en su correspondiente expediente.

Tras haberlo estudiado y debatido E suficientemente y en base al informe de la secretaria-interventora municipal, el Pleno acuerda lo siguiente por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo EH-BILDU :

PRIMERO: Se acuerda aplicar un complemento de productividad puntual al Sr. Jesus Mari Aguirrezabala, siendo la cantidad económica el resultado de la aplicación del 15% de la cantidad resultante de la suma de Sueldo, Complemento de Destino y Complemento Específico de Tramo General del puesto de administrativo de secretaría.

Este complemento se aplicará por un período de seis meses.

La cantidad resultante del complemento de productividad será de 1.959,63 € brutos.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Produktibitate osagarri hau ordainketa bakarreako izango da eta aitortutako kopurua inolaz ere ezingo da aurrerantzean egin daitezkeen balorazioekiko banakako eskubide bat izan.

HIRUGARRENA: Akordio hau interesdunari jakinarazi.

EH-BILDU taldeko zinegotziak, bere bozkaren zentzua azaltzeko xedearekin zera dio:

Bera ez dagoela ados eman beharreko % 15arekin. Berak uste du % 20a ematea zilegiagoa dela.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU
TEKNIKOAK**

2018. ekitaldirako Aurrekontu Orokorra.

Gaia udal-kideei azaldu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Aurrekontu Orokorren behin-behineko onarpena proposatzen da, honen laburpena honako hau izanik:

SEGUNDO: Se trata de un complemento de productividad de pago único, y en ningún caso la cuantía asignada originará ningún tipo de derecho individual respecto a las valoraciones o apreciaciones que se puedan dar en adelante.

TERCERO: Notificar la presente al interesado.

El concejal del grupo EH-BILDU, con el fin de exponer el sentido de su voto expone lo siguiente:

Con lo que él no está de acuerdo es con la decisión del 15%, sino que estima que es más legítimo el otorgarle el 20%.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS
MUNICIPALES**

**Presupuesto General para el ejercicio
2018**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se propone la aprobación inicial del Presupuesto General cuyo resumen es el siguiente:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
 (GIPUZKOA)

GASTUA		
1.CAP.	GASTOS PERSONAL/LANGILEK	
2.CAP.	GASTOS CORRIENTES / GASTU	
3.CAP.	GASTOS FINANCIEROS/FINANTZ	
4.CAP.	TRANSF. CORRIENTES/TRANSF.	
5.CAP.	KREDITU GLOBALA/CREDITO GI	
6.CAP.	INVERSIONES REALES / INBERT	
7.CAP.	TRANSF. CAPITAL/KAPITAL TRA	
8.CAP.	ACTIVOS FINANCIEROS / FINAN	

Gaia aski aztertu ondoren, bozkatu egiten da gehiengo absolutuz onartzen delarik O.H.E. taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin eta EH-BILDU taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Tras estudiar el tema suficientemente, se procede a la votación, siendo aprobada la propuesta por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo O.H.E. y la abstención del concejal del grupo EH-



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatu espedientea jendaurrean jartzen da 15 lanegunetan zehar, interesdunek espedientea aztertu dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Adierazitako jendaurreko epea agortu ondoren inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da, horretarako beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

- Bozken azalpena:

.- EH-BILDU:

* Aurrekontuetan ez da jaso Olaberri-Errekalde bidearen inguruko inbertsiorik.

.- O.H.E.:

* Ez daude ados Alkatearen soldatarekin.

* Plazaren itxitura egiteko ez da aurrekontu partidarik aurreikusi

Alkateak erantzuten du bai lan batzorde baita batzorde informatzailean ere proposamenak egiteko aukera eman zela eta ez zela ezer proposatu.

BILDU.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 15.1 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se expone al público durante 15 días hábiles con el fin de que los interesados puedan examinar el expediente y en su caso presentar reclamaciones que consideren oportunas.

Transcurrido el plazo de información pública expresado sin que se haya presentado reclamación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el Presupuesto General, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

- Explicación de los votos:

.- EH-BILDU:

No está recogido en los presupuestos la inversión del camino Olaberri-Errekalde.

.- O.H.E.:

* No están de acuerdo con el sueldo del Alcalde.

* No se recoge ninguna partida presupuestaria para el cerramiento de la plaza.

El Alcalde responde que tanto en las comisiones de trabajo como en la informativa se dio opción a que se presentaran propuestas a incluir en el presupuesto y no se propuso nada.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Dena den, aukera badago diruzaintza gerakina erabiltzeko aurrerantzean egin daitezkeen proposamenak egikaritzeko.

Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda

Gaia udal-kideei azaldu zitzaion joan zen batzorde informatzailean.

Idazkariak zera azpimarratzen du: lanpostuen balorazioaren emaitzak, orain onartzera ekartzen den lanpostuen zerrenda barruan txertatuko da.

Gaia bozkatzen da, eta hurrengo akordio erabaki hauek hartzen dira gehiengo absolutuz, EH-BILDU taldeko zinegotziaren ezezko botoarekin:

LEHENA: 2018 urterako Olaberriko Udaletxeko pertsonalaren plantilla eta lanpostuen zerrendari onarpena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honi dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

9-2017 kreditu aldaketari dagokion espedientearen onarpena, kreditu transferentzia modalitatean.

Gaia udal-kideei azaldu zitzaion joan zen batzorde informatzailean.

Ondoren adierazten den kreditu aldaketa proposatzen da:

De todas formas, cabe la posibilidad de utilizar el remanente en proposiciones que se hagan a posteriori.

Plantilla Orgánica y Relación de Puestos de Trabajo.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

La secretaria puntualiza que el resultado de la valoración de puestos de trabajo se insertará en la relación de puestos de trabajo que se trae para su aprobación.

Se procede a la votación siendo adoptados los siguientes acuerdos por mayoría absoluta y con el voto en contra del concejal del grupo EH- BILDU:

PRIMERO: aprobar la plantilla de personal y la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Olaberria para el ejercicio 2018.

SEGUNDO: publicar el anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.”

Aprobación del expediente de modificación de créditos 9-2017, modalidad transferencia de créditos.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se propone la siguiente modificación de créditos:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kredit
1.0000.6223420002.2017. 889	PÁDEL	100.000,00	31.000,00	69.000,00
	GUZTIRA	100.000,00	31.000,00	69.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Cap.	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.0000.6271521001	ETXEBIZITZEN AURREPROIEKTUA	11.000,00	31.000,00	42.000,00
	GUZTIRA	11.000,00	31.000,00	42.000,00



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du, Iñigo Sarasola (EH-BILDU), Nerea Castaño (O.E.O.) zinegotzien eta Alkatearen abstentzioarekin:

BAKARRA: Onarpena ematea 9/2017 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2017ko aurrekontuaren barruan.

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei 23/11/2017 -rarteko aurkeztutako fakturak:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda, con la abstención de los Concejales Iñigo Sarasola (EH-BILDU), Nerea Castaño (O.E.O) y el Alcalde:

ÚNICO: aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 9/2017 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2017.

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa, a fecha 33/11/2017:

ZNB.	IZENA	AZALPENA	KOPURUA
1	EULEN	FRA. 3149689	4.765,33 €
2	CONSTR. ITURRIOZ	FRA. 380/17	26.363,70€
3	SOROA ARQUITECTOS	FRA. 71	39.936,90€
4	GOITU ERAIKUNTZAK	FRA. 121	15.674,24€
5	GOITU ERAIKUNTZAK	FRA. 120	128.109,04€
6	GOIHERRIKO TRESNA COOP.	FRA. 205	4.270,09€
7	GIPUZKOAKO FORU ALDUN.	Kudeaketa kostua	7.543,77€
8	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	396/17	3.228,44€



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak, Construcciones Iturrioz baltzuak Jose Maria Aristrain kaleko aparkalekua egiteagatik igorritako 26.363,70€ ko 380/2017 zenbakidun faktura zerrendatik ateratzea proposatzen du, ez baitute guztiz obra bukatu.

Fakturak bozkatzen dira, gehiengo absolutuz onartzen direlarik Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2017ko azaroaren 13ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **3.086.210,71 euro** ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

El Alcalde propone que se saque de la lista de facturas la n.º 380/2017 de 26.363,70€ emitida por construcciones Iturrioz por la ejecución del aparcamiento de Jose María Aristrain por no haber concluido completamente la obra.


Se procede a la votación, quedando aprobadas por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo Bildu.

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 13 de noviembre de 2017.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.086.210,71 euros**.

Los corporativos quedan al corriente.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Galdera eta erreguak

Ez dira egiten

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 19:10-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du

ALKATEA / EL ALCALDE

Ruegos y preguntas

No se formulan

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 19 horas y 10 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado

IDAZKARIA / LA SECRETARIA